



**Hernaniko Udala
mugikortasun seguruarekin**

Bide heziketa Hernanin

Ramon Azpiolea eta Jon Retegi


Hezkuntza funtsezko tresna da eraldaketarako; izan ere, hezkuntzak hausnarke- ta eragiten du, gauzak horrela egitearen zergatiaz jabetzen gara. Gauzak aldatu ahal izateko aurretiazko eta ezinbesteko urratsa da.

Zentzu horretan, mugikortasun seguru- rako hezkuntzak lehentasunezko xede- tzat izan behar du pertsonen duten arris- kuaren pertzepzioa areagotzea, hori bai- ta prebentzio-katearen lehenengo urra- tsa eta, ziurrenik, garrantzitsuen. Za- lantzarik gabe, istripuen ondorioak mu- rritzeko modurik egokiena **"istripurik**

ez izatea" da, eta hori gu guztion es- kuetan dago.

Testuinguru horretan, **prebentzioaren** aldeko apustua egin da; prebentzioa, pertsonen arriskuaren pertzepzioa areagotu eta beren jarrerak jarrera seguru- goengatik aldatzeko beharrezkoa den oinarritzko estrategia eta balore gisa.

Baina nola iritsi prebentziora? Zeintzuk dira prebentzioaren oinarrian egon be- har duten hezkuntza-baloreak? Preben- tzioaren oinarria **erantzukizuna eta autonomia** dira.



Oinarrizko hiru balore horiek funtsezkoak dira, eta eragin zuzena dute mugikortasun seguruaren eremuan garrantzia duten beste bi balore hauen gainean: **elkarbizitza eta zuhurtzia**.

Istripuen prebentziorako ezinbestekoa da portaera jakin batzuk aldatzea. Gauza ez da zer egin behar dugun jakitea bakarrik. Ez da nahikoa arauak ezagutzea, ezta arau horiek betetzeko nahikoa gaitasun edukitzea ere. Ez da nahikoa subjektuak izan dezakeen borondatea ere. Gure portaera osotasunean integratu behar da testuinguruan prebentzioak eragina izan dezan.

Portaera osotasunean tratatzea da, hain zuzen ere, **konpetentzien** araberako ikuspegi batek eskaintzen duena.

Definizio desberdinak bat datoz esaterakoan **konpetentzia** bat testuinguru jakin batean erakusten diren jokaeren multzoa dela, ezagutzak (informazioak eta kontzeptuak), trebetasunak eta jarrerak bateratzearen ondorio. Ez da jokaera isolatu bat, beren artean lotura duten jokaera askoren batura baizik. Jokaera horiek eredu bera jarraitzen dute, eta portaera eraginkor bat

izatea ahalbidetzen diote pertsonari. **Konpetentziek** jarduera bat arrakastaz gauzatzea ahalbidetzen dute.

Zazpi konpetentzia identifikatu dira mugikortasun seguruaren arloan.

Arreta prozesu psikologiko jarraitu bat da, pertsonen jokaera modu eraginkorrean gertatzea ahalbidetzen duena. Horrela arretari zeharkako izaera aitortzen zaio nolabait ere; izan ere gainerako konpetentziak burutzen eragiten du.

Bestalde, pertsonaren barneko alderdiei buruzko bi konpetentzia daude: **neure burua eta nire emozioak kudeatzea** eta **bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea**.

Pertsonaren kanpoko alderdiekin zerikusia duten bestelako konpetentziak ere badaude: **zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia** eta **inguruaren azterketa izenekoak dira**.

Azkenik, bide-jokaeraren alderdi zailenetakoak taldeko presioarekiko erresistentzia eta egokitzapena eta malgutasuna izenekoak dira.



Bide heziketa Hernanin

Lehen hezkuntzako programazioa

Nori zuzendua. Udalerriko ikastetxe guztietako lehen hezkuntzako hiru zikloetako ikasleak.

Iraupena:

- Lehen hezkuntzako 1. mailan: ordubete ikasgelan eta ordubete kalean.
- Lehen hezkuntzako 2. mailan: bi ordu ikasgelan eta ordubete kalean.
- Lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailatan: bi ordu ikasgelan eta ibilbide bat garraio publikoetan.
- Lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailatan: bi ordu ikasgelan eta zirkulazioko haur parkean bi ordu.

Helburuak:

- Haurra konturatzea zer nolako arazoa dagoen istripuen inguruan.
- Haurra jabetzea kalean barrena ibiltzen denean duen jokaez; zein diren bere barruko prozesu eta pentsamenak.
- Haurra jabetzea jokabide desberdinek eragiten dituzten arriskuez eta bere zaurgarritasun propioaz.



Ekintzen azalpena / Metodologia.

Ekintzak lehen hezkuntzako hiru zikloetarako egiten dira. Bi saio ikasgelan bertan egiten ditugu (haur hezkuntzako lehenengo mailan saio bakarra). Saio horietan metodologia aktibo eta parte-hartzaileak erabiltzen ditugu. Eta beste saio praktiko bat egiten dugu, kalean barrena oinez lehen zikloan, garraio publikoko bidaiari gisa bigarren zikloan eta bizikleta gidari gisa hirugarren zikloan (azken hori parke mugikor batean).

Proiektua haurren adinari egokitu zaio, haurren beharrak abiapuntutzat hartuz, beren autonomia garatzeko helburuarekin, jokabide, jarrera eta portaerei buruzko hausnarketa eginez eta oinezko, bidaiari nahiz gidari gisa dituzten rolez jabetuz.

Ebaluazioa. Etengabeko ebaluazioa egiten da saioetan zehar eta bukarran azken ebaluazioa egiten da talde bakoitzarekin.

Bigarren hezkuntzako programazioa

Nori zuzendua. Bigarren hezkuntzako hiru lehenengo mailetako ikasleak.

Iraupena. Ordubete ikasgelan eta bi ordu kalean bizikletan.

Helburuak:

- Norberaren zaurgarritasunaz eta arriskuez gehiago jabetaraztea.
- Autogestio emozionalak bideratzen duen norberaren jabetze maila indartzea.
- Talde presioari aurre egiteko baliabideak indartzea.
- Arrisku nagusiak detektatzea eta horrekin lotutako jokabide ziurrak identifikatzea.



Ekintzen azalpena / Metodologia.

Saio bat ikasgelan egiten dugu, metodologia aktibo eta parte-hartzaileak erabiliz. Eta beste saio praktiko bat egiten dugu zirkuitu batean eta herrian barrena ibilbide bat eginez.

Proiektua parte-hartzaileen adinari egokitu zaio, haien beharrak abiapuntutzat hartuz, beren autonomia

garatzeko helburuarekin, jokabide, jarrera eta portaerei buruzko hausnarketa eginez eta oinezko, bidaiari nahiz gidari gisa dituzten rolez jabetuz.

Ebaluazioa. Etengabeko ebaluazioa egiten da saio guztietan eta bukarran azken ebaluazioa egiten da talde bakoitzarekin.

Marrazki erakusketa

Nori zuzendua. Herriko eskola guztietako lehen hezkuntzako 2. eta 3. zikloko ikasleak.

Iraupena. Ikasleek egindako marrazkiak astebetez jartzen dira Biteri Kultur Etxean ikusgai.

Helburuak. Ikasleek bide-heziketako saioetan egiten dituzten lanak herritarrei erakustea eta, aldi berean, horren kontzientzia sortzea.

ISTRIPUA



Udako ikastaroaren programazioa

Nori zuzendua. Lacunza hizkuntza akademiak antolatzen duen udako ikastaroetan (Summer Camp) parte hartzen duten gazteak.

Iraupena. Bi saio ikasgelan, bakoitza 90 minutukoa, eta saio bat pistan, 120 minutukoa. Aldez aurretik ikastaroen dinamizatzailearekin landu beharreko gaiak lantzen dira, gerta baitaiteke parte-hartzailearen batek ulertzeko arazoak izatea hizkuntza dela eta.

Helburuak:

- Norberaren zaurgarritasunaz eta arriskuez gehiago jabeaztea.
- Autogestio emozionalak bideratzen duen norberaren jabetze maila indartzea.
- Talde presioari aurre egiteko baliabideak indartzea.
- Arrisku nagusiak detektatzea eta horrekin lotutako jokabide ziurrak identifikatzea.



Ekintzen azalpena / Metodologia.

Saioak adin taldeka banatzen dira eta, adin tartea nahiko zabala denez, bi taldetan banatu eta adinaren araberrako ekintzak egiten dira. Saioaren lehengo zatia ikasgelan lantzen da, eta gero garraio publikoa erabiliz, parke mugikorrera joaten gara. Metodologia aktiboa erabiltzen da, parte-hartzaileek zirkulazioaren munduan betetzen duten rola eginez.

Ebaluazioa. Saioa bukatzerakoan azken ebaluazioa egiten da.

Adinduen programazioa

Nori zuzendua. Jubilatuen etxean ibiltzen diren jubilatuak edo aurrejubilatuak.

Iraupena. Bi orduko saio bat. Proiektua nola doan ikusita, saio gehiago ere egin daitezke.

Helburuak:

- Pertsona hauek zirkulazioarekin loturik dauzkaten arazoei buruzko hausnarketa egitea.
- Zirkulazioarekin loturik dituzten muga eta arazoez gehiago jabeaztea.
- Zirkulazioarekin loturiko gaietan autonomia eta erantzukizuna sustatzea.



Ekintzen azalpena / Metodologia.

Hezitzaileen eta parte-hartzaileen arteko aurkezpenean talde eztabaia bat sortzen da, pertsona hauen arrisku eta zaurgarritasunari buruz eta zirkulazioaren egoerari buruz.

Erabiltzen diren beste estrategia metodologiko batzuk dira lana talde txikitan egitea (horretarako prestatutako galdesorta baten laguntzaz) eta hezitzaileek azalpen bat egitea.

Ebaluazioa. Talde lanaren analisia. Saioa bukatzerakoan azken ebaluazioa egiten da parte-hartzaileekin.

Udalekuetako programazioa

Nori zuzendua. Udalak antolatzen dituen uztailako udalekuetan parte hartzen duten haurrak. Bi lanketa mota egiten dira: bat begiraleentzat eta bestea 9-12 urte bitarteko haurrentzat.

Iraupena. Begiraleekin egiten den lanketa: ordubete. Haurrekin egiten den lanketa: ordubete

Helburuak. Parte-hartzaile gehienek lehendik ere haur hezkuntzan lantzeko programan parte hartu dutenez, ikasturtean zehar landutako helburuak sendotzea da xedea.

Ekintzen azalpena / Metodologia. Begiraleekin egiten den lanketa gelan egiten da. Ikasturtean zehar egindako ekintzen berri ematen zaie, beraiek ere ildo beretik jo dezaten. Haurrekin egiten diren ekintzak begiraleekin batera egiten dira, batetik bestera joateko bizikleta erabiltzen dutenean (bizikleta gidari moduan).



Ebaluazioa. Udalekuetako begiraleek, bide-heziketako irakasleek eta udaleko teknikariek azken ebaluazioa egiten dute bukaeran.

Mugikortasunaren astea (bizikleta festa)

Nori zuzendua. Herritar guztiei, oro har.

Iraupena. Bizikletaren eguna da gure lanaren ardatza. Egun horretan hiru orduko tailer bat egiten da herrian.

Helburuak. Segurtasunez jokatzeko alderako arauak ezagutzeak eta betetzeak duen garrantzia baloratzea eta horretaz jabetzea.

Ekintzen azalpena / Metodologia. Egiten den ekintza da bi gune desberdin dituen zirkuitu bat egitea. Gune horietako batean arauen ezagutza eta jokabide seguruak lantzen dira eta, bestean, berriz, gidatzeko trebetsunak eta jokabide seguruak.

Ebaluazioa. Saioa bukatzerakoan azken ebaluazioa egiten da. ■

